

ORDENANTZA FISKALA, UDALAK HEZKUNTZA, KULTURA, KIROL EDO GIZARTE ARLOAN ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO ETA JARDUERETAKO SARRERA, IZENEMATE EDO MATRIKULETAKO PREZIO PUBLIKOEN GAINEKOA

14. ORDENANTZA

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

KONTZEPTUA

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloetan Udalak urtean antolatzen dituen programa, jarduera edo ikastaroetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo gisako bertze edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze arauetan sartuta ez daudenean.

KUDEAKETARAKO ETA DIRU-BILKETARAKO ARAUAK

3. artikulua.

I.–Kultur eta kirol arloko denboraldiko jardueren prezio publikoa ordainketa bakar batean pagatzen ahalko da inskripzioa egitean, edo hiru alditan eta honela:

–Lehenengo epea maiatzean, jarduera berri edo hartan izena ematen denean; prezio publikoaren %40 ordainduko da.

–Bigarren epea irailean izanen da eta prezio publikoaren %30 ordainduko da.

–Hirugarren ordainketa abenduan eginen da eta prezio publikoaren gainerako %30 ordainduko da.

II.–Neguko igeriketa ikastaroko jardueretan, prezioaren zenbatekoa inskripzioa egitean pagatzen ahal da, edo bi epeetan:

–Lehenengo epea, izena ematen denean; prezioaren %60 ordainduko da.

Bigarren epea abenduan; prezioaren %40 ordainduko da.

–Ezarritako epeetan zatikatutako kuotaren zenbatekoa ez bada ordaintzen, zorra %5 goratuko da, eta beste epe bat jarriko da dagokion abonamendua egiteko. Ordaindu gabe jarraitzeak jarduera egiteko eskubidea galtzea ekarriko du. Baja emanen da jardueran, eta ez da eskubiderik izanen ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko. Orobat, geroraturako kuotak ordaintzeko dituenak, ezin izanen du izenik eman ondoko ekitaldietako jardueretan, dituen zorrak ordaindu arte.

III. –Bi hilabetetik behera irauten duten jarduera puntualen prezio publikoa epe bakarrean ordainduko da; hau da, jarduerarako izena ematen denean: udako igeriketa ikastaroak, saskibaloiko campusa eta bestelakoak.

4. artikulua. Ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian eginen da diru-bilketa.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, ordaindutako zenbatekoa itzuliko zaio.

TARIFAK

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira, edo egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraituz kasuan-kasuan ezarriko dira.

TARIFEN ERANSKINA

2016/2017 IKASTURTEA

I. epigrafea.–Haurrendako kirol jarduerak.

I.1. Kirol eskolak:

–6tik 14 urte bitarte, biak barne: ikasturteko 120,00 euro, bizilagunek; 150,00 euro, kanpotarrek.

I.2. Haurren igeriketa ikastaroak, ikasturte osoa:

–3tik 14 urte bitarte, biak barne: ikasturteko 172,20 euro, instalazioetako abonamendua dutenek eta 245,20 euro, abonamendurik ez dutenek.

I.3. Haurren igeriketa ikastaroak, udako ikastaroa:

–3tik 14 urte bitarte, biak barne: ikasturteko 71,10 euro, instalazioetako abonamendua dutenek eta 102,10 euro, abonamendurik ez dutenek.

II. epigrafea.–Gazte eta helduendako kirol jarduerak.

II.1. Lehiaketa federatuak eta ez federatuak:

–15etik 17 urte bitarte, biak barne: ikasturteko 146,62 euro, bizilagunek; 176,62 euro, kanpotarrek.

II.2. Lehiaketa federatuak eta ez federatuak:

–18 urtetik gorakoak. ikasturteko 166,59 euro, bizilagunek; 196,59 euro, kanpotarrek.

II.3. Erretirodunen eta pentsiodunen soinketa:

–Ordubeteko hiru saio astean: 74,34 euro/denboraldia.

II.4. Gazte eta helduendako igeriketa ikastaroak, ikastaro osoa:

–15 urtetik goiti: ikasturteko 232,15 euro, instalazioetako abonamendua dutenek eta 354,60 euro, abonamendurik ez dutenek.

II.5. Gazte eta helduendako igeriketa ikastaroak, udan:

–15 urtetik goiti: ikasturteko 93,95 euro, instalazioetako abonamendua dutenek eta 145,75 euro, abonamendurik ez dutenek.

III. epigrafea.–Haurrendako kultur jarduerak.

III.1. Ludotekak: ikasturteko 185,50 euro, bizilagunek; 231,55 euro, kanpotarrek.

III.2. Hiri kanpalekuak: 12,75 euro egunean.

III.3. Euskal dantzak:

–6tik 14 urte bitarte, biak barne: ikasturteko 120,00 euro, bizilagunek; 150,00 euro, kanpotarrek.

IV. epigrafea.–Beste jarduera batzuk.

IV.1. Kirolerako hiri kanpalekuak (bost egunekoak):

–Antsoaingo bizilagunak: 111,13 euro.

–Antsoaingo bizilagun ez direnak: 141,13 euro.

V. epigrafea.–Antzerkiko sarrerak.

V.1. Haurrendako eta adin ororendako:

–Zinema, antzerkia eta bertze batzuk: 3,80 euro saio bakoitzeko.

Txartel leihatilarekin kontratatutako ikuskizunetan, sarreren prezioa konpainiarekin adostuko da emanaldiaren kontratua egitean.

V.2. Helduak:

–Zinea, abesbatzak, bandak, musika klasikoa: 4,85 euro saio bakoitzeko.

–Antzerki, dantza, musika: 6,50 euro saio bakoitzeko.

–Ikuskizun bereziak: saio bakoitzeko 10,50 eurotik 20,60 euro bitarte. Ondorio horietarako, ikuskizun berezizat hartuko dira kontratatzekeo prezioa 3.000,00 eurokoa denean edo garestiagoa (BEZa barne).

Txartel leihatilarekin kontratatutako ikuskizunetan, sarreren prezioa konpainiarekin adostuko da emanaldiaren kontratua egitean.

VI. epigrafea.–Gazteriaren Etxeak antolaturiko ikastaroak.

1. 20 orduko ikastaroak: Antsoaingo bizilagunendako, 26,03 euro ikastaro bakoitza; Antsoaingo bizilagun ez direnendako, 39,10 euro ikastaro bakoitza.

2. 40 orduko ikastaroak: Antsoaingo bizilagunendako, 52,27 euro ikastaro bakoitza; Antsoaingo bizilagun ez direnendako, 78,20 euro ikastaro bakoitza.

Epigrafeen oharrak:

1. Erroldatu gabeak ikastaro eta lantegietan plaza librerik gelditzen bada baizik ez dira onartuko.

Erroldatu gabeko pertsonak, baldin IDAKI kiroldegiko abonatuak badira edo Ezkaba Ikastetxe Publikoko ikasleak, izena emateko eskubidea izanen dute ikastaro edo lantegietan.

2. Antolaketa eta programazio arrazoiak direla-eta ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko behin betiko inskripzioa bete ondoren. Gazteriaren Etxeak antolatutako ikastaroetan, ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko behin betiko inskripzioa bete baldin bada, salbu eta itzulketa eskatu duenak uzten duen plaza betetzeko prest dagoen beste pertsonaren bat baldin badago eta kasuan kasuko jarduerak horretarako bide ematen badu. Edonola ere, Udalak ordaindutako zenbatekoa itzuli ahalko du arrazoi bereziak daudenean. Betiere behar bezala justifikatu beharko dira.

3. Izena emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza librerik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen badute.

4. Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak biltzeagatik, 10 erabiltzaileri baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Horrelakoetan, tarifa igoko zaie kostuaren %50 estaltzeko, gutxienez.

5. Herritarrak ordenantza honetako jardueraz baldintza beretan balia daitezten, horretarako eginen den laguntza sozialen deialdian ezarritakoari jarraituko zaio.

6. Antsoaingo herritarrek badute eskubidea kirol jarduera egiteko Udaleko Kirol Zerbitzuak funtzionamenduko oinarrizko arau gisa ezarri nahi duen Kode Etikoaren balioen babesean. Orobat, eskubidea dute komunikaziorako bideak izateko, dagokion kirol entitateari eta Udalari iritzi, iradokizun eta kexak planteatzeko hari buruz eta egindako jarduerari buruz. Beraz, izena ematerakoan eta Udaleko Kirol Zerbitzuarekin lotutako edozein kirol jarduera egiterakoan, erabiltzaile eta familiei konpromiso hau proposatuko zaie:

Onartzea Kode Etiko hau, egindako kirol jarduraren zati bereiziez den neurrian. Erabiltzaile edo adingabearen guraso den heinean, haren jarrerari eragiten dion guztian hura betetzeko erantzukizun morala hartzea.

Kode Etikoa ezartzen eta garatzen laguntzea, baita aldizka ebaluatzen ere, horretarako jartzen zaizkion baliabideak erabiliz.

Kirol jarduera garatzen den lekuetako instalazioak zaintzea, baita aldagelak eta bertan erabiltzen den kirol materiala ere.